

- **3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:**

Negozioak ongi funtzionatzeko, hornitzaile eta bazkide batzuk behar ditugu. Plastikoko birziklatua hornitzen duten enprekin lan egingo dugu botilak egiteko. Horrez gain, botilak ekoizten eta moldatzen dituzten enpresak izango ditugu.

Botilak pertsonalizatzeko, inprimaketa edo grabaketa zerbitzuak eskaintzen dituzten bazkideekin elkarlanean arituko gara. Produktuak bezeroengana iristeko, logistika enpresek eta salmenta plataforma digitalek lagunduko digute. Azkenik, ingurumenarekin lotutako elkarteekin lan egingo dugu gure proiektuaren balio ekologikoa indartzeko.